

**viv**

**JIA ZHANG-KE  
LEMOHANG JEREMIAH MOSESE  
ISAKI LACUESTA  
DEA KULUMBEGASHVILI**

**2022.07.09  
- 2023.01.08**

**cin**  
**vive**  
**le**  
**ciném**

**TABAKALERA  
ERAKUSKETA-ARETOA**

vive  
le

cinéma

Vive

EUSKARA

le

cinéma!



Tabakaleran dena prest dago ikus-entzunezkoen eta zinemaren sorkuntzari eskainitako urteroko ekitaldirako. Aurten ***Vive le cinéma!*** izeneko erakusketa kolektiboa aurkeztuko dugu. Erakusketa Amsterdamgo Eye Filmmuseumekin batera eta Donostia Zinemaldiaren laguntzarekin egingo dako koprodukzioa da.

Erakusketan, lau zinemagilek zinema aretorako filmak egiteko praktika eraldatu dute erakusketa-areto honetarako instalazio zinematografikoak sortzeko. Dea Kulumbegashvili, Lemohang Jeremiah Mosese, Isaki Lacuesta eta Jia Zhang-ke izan dira gonbidapen horri erantzun eta pantailaren mugak ikertu dituztenak.

Gero eta ohikoagoa da erakusketa-areto batean filmak ikustea, edo zinema-areto batean ikus-entzunezko piezak ikustea, baita truke horri buruzko esperientzia ere. Zinemaren eta erakusketen arteko gurutzaketak espazio-denbora berri bat sortzen du. Denborari

dagokionez, ez dago hasierarik, ezta amaierarik ere, mugitzen diren irudiak etengabe proiektatzen baitira. Espazioari dagokionez, pantaila zinematografikoen izaera estatikoa eta bi dimentsioko, a hiru dimentsioko esperientzia bilakatzen da, eta hor mugitzen da ikuslea.

Tabakaleran bizi garen erakunde askorentzat zinema eta ikus-entzunezkoen sorkuntza oso garrantzitsuak dira gure programetan, eta, horregatik batzen ditugu indarrak horien hedapena sustatzeko eta sorrera bultzatzeko. Gainera, ilusio handia egiten digu Kulumbegashviliren eta Lacuestaren ekoizpen berriko bi lan izateak; izan ere, zinemagile horiek eza gutzen dute hiria dagoeneko, Urrezko Maskorra irabazi baitzuten zenbait kategoriatan. Orain erakusketaz eta zinemaz askotariko formatuetan gozatzea baino ez zaigu falta.



# DEA KULUMBEGASHVILI

Dea Kulumbegashvili zinemagile eta idazle georgiarra da, eta Tiflisen bizi da. New Yorkeko Columbia University School of the Arts eta The New School erakundeetan ikasi ondoren, gaur egun Kulumbegashvili panorama zinematografikoko begirada interesgarrienetako bat da. Georgiako aniztasun kultural, etniko eta konfesionalaren eragin handia dauka, eta bere filmak herrialde horretako errealitate desberdinak deskribatzen ahalegintzen dira, arreta berezia duten pertsonaia femeninoen bitartez.

Bere lehen film luzea, **Dasatskisi / Beginning** Canneseko Jaialdiko lehiaketa ofizialean parte hartzeko aukeratu zuten, eta 2020an hainbat sari jaso zituen Donostia Zinemaldian ere. Plano soilez osatutako filma da, eta oinarrizkoa dena bilatzen duen osaera plastikoa nagusitzen da; artifiziorik gabeko leiar bakar batekin grabatutako eszena estatikoek giro kargatua, askotan nahasgarria transmititzea lortzen dute.

Arte garaikideak erakartzen du, zehazki argazkia, bideoarte eta soinu-arte diziplinek. Kulumbegashvilirentzat, zinema izenik ez duten gauzak sentsorialki eta intelektualki adierazteko aukera ematen duen bitartekoa da. Zinema egitea irudiaren eta pantailaren mugak erradikalki aztertzea izango litzateke, distrakzioa saihesteko moduan, eremu ezezagun, esanguratsu eta ikusezinetara iritsi ahal izateko.

Bere lehenengo bi film laburrek ere, **Léthé** (2016) eta **Invisible Spaces** (2014), Georgia dute kokaleku. Paisaiak eta naturak idazten dute Kulumbegashvililik kontatu nahi diguna, ez dira hondoko oihal hutsa bakarrik. Probokatzea helburu izan gabe, errealitate femeninoen berri ematen da. Errealitate horietan, alienatuta agertzen dira, eta erromantizatu gabe, beren bizitzaren eta kide diren komunitateak ezarritako patuaren artean igarotzen dira, nortasun propioago eta askatzaileago baten bila.

## CAPTIVES

“**Captives** ikus-entzunezko instalazio inmersibo gisa diseinatuta dago, eta pantailako pertsonaia baten espazio erabat intimoan sartzea gonbidatzen du publikoa. Proiektua presentzia eta existentziaren nozio dikotomikoak forma fisiko eta ukiezinetan aztertzeari esker sortu zen. Errepresentazioaren esanahia zalantzan jarri nahi nuen, gizatiarraren eta gizatiarra ez denaren arteko harremana, bai eta izateko bi modu horien arteko lotura ere. Funtsean, espazio fisikoan dagoen ikuslearen eta pantailan bestearen presentziaren artean sortzen den hondoko narratiba aztertzen duen begiratze-ekintza aztertzean datza obra”.

DEA KULUMBEGASHVILI

## DEA KULUMBE- GASHVILI

GEORGIA, 1986



Azken urteetako begirada harrigarrienetako bat da. Proposamen zinematografiko irmoa, zehatza eta gogorra izanik, bere lehen film luzeak, **Dasatskisi / Beginning**, 2020an ospatu ez zen Canneseko Jaialdiaren Sail Ofizialean parte hartu zuen, eta Donostia Zinemaldiko Sail Ofizialaren parte izan zen. Azken horretan, lau sari jaso zituen: film onenaren Urrezko Maskorra, Zuzendari onenaren eta Aktore onenaren (Ia Sukhitashvili) Zilarrezko Maskorrek eta Gidoi onenaren saria, Kulumbegashvili-entzat. **Captives** da ***Vive le cinéma!***, erakusketarako bere proposamena, bideo-instalazio bat. Instalazio horretan, soinuak protagonismo berezia du eta giza presentziari buruzko gogoeta egitera gonbidatzen du.

Léthé (2016)



Dasatskisi / Beginning (2020)

Filmografia:

DASATSKISI / BEGINNING (2020)  
125 min

LÉTHÉ (2016) 15 min  
INVISIBLE SPACES (2014) 10 min





*Prohibimos en España (2022)*

# ISAKI LACUESTA

Isaki Lacuestak bere sorkuntzari aniztasunetik heltzen dio. Imajinatzeko askatasunak film eta instalazio bakoitzean zinema asmatzea ahalbidetzen dio; hala, hizkuntzaren bidez proposamen berritzaileak egiten ditu.

Nazioarte-mailan zinema garaikideko zuzendaririk garrantzitsuenetarikoaz ari gara hizketan. Lacuesta ohituta dago bere lanak zinema-aretoetan eta arte-zentroetan aurkeztera. 2018an Parisko Georges Pompidou zentroak atzerabegirako osoa eskaini zion eta berari buruzko liburu bat argitaratu zuen: **Le cinéma d'Isaki Lacuesta** (editoreak: Brice Castanon eta Sergi Ramos). Gainera, zinemagileak sari ugari jaso ditu zinema-arloan. Berlinaleko Sail Ofizialean bere azkenengo film luzea, **Un año, una noche** (2022), aurkeztu du. Hainbat sari jaso ditu: Donostia Zinemaldiko bi Urrezko Maskor (**Los pasos dobles** 2011; **Entre dos aguas** 2018), Kataluniako Generalitateko Zinematografia Sari Nazionala (2012), Sant Jordi Saria (2022, 2017) eta Eloy de la Iglesia Saria (Malagako Zinemaldia, 2020).

Esan dezakegu Isaki Lacuestaren zinema *doblearen* kontzeptuak zeharkatzen duela. Batetik, bikote gisa funtzionatzen duten lau film ditu: **El cuaderno de barro** (2011), **Los pasos dobles** (2011) filmarekin eta **La leyenda del tiempo** (2006), **Entre dos aguas** (2018) filmarekin. Azken bi horiek 12 urteko aldeaz filmatu ziren. Gainera, *doblea* antzeman daiteke **Cravan vs Cravanen**, ere, Lacuestaren lehenengo film luzean. Film horretan Frank Nicotrak Arthur Cravanen bizitza ikertzen du, baina bere *doblea* ere izan zitekeen. Eta zinemagileak **La noche que no acaba** (2010) filmean Ava Gardnerren *doblea* sortu zuen; elkarrizketa bat islatu baitzuen aktorearekin gaztetan eta heldutan.

Aldi berean, Lacuestaren lanean *doblearekin* zuzenean lotutako beste kontzeptu bat dago: *mamuarena*. **La prope-  
ra pell** (2016), Isa Camporekin batera zuzendutako filmaren kasuan, filmaren kasuan, nerabe baten istorioa kontatzen da; zortzi urte desagertuta egon ondoren etxera itzultzen

da, denek hilda zegoela uste zutenean. Edo **Los condenados** (2009), iragan militantearekin lotutako mamuz betetako filma, Argentinan kokatua. Horrenbestez, Lacuestaren zinema *doblez* eta *mamuz* beteta dagoela esaten dugu.

## PROHIBIMOS EN ESPAÑA.

CENSURAS,  
PROHIBICIONES  
Y DENUNCIAS  
EN LA ESPAÑA  
DEMOCRÁTICA  
(1977-2022)

“Ispiluz osatutako kuboaren barrualdean, Espainian ideiak eta irudiak zabaltzeko ehun bat zentsura- eta debeku-kasu daude. Irudi horiek klandestinoak direnez, ikuslearen begiradatik ihes egiten dute benetan. Instalazioak erronka elkarreragilea planteatzen du: gaur egun irudi debekatuak medusa mitologikoen antzekoak dira eta ikusleak Pertseoren modura erka ditzake. Hala, kultura banaka sartu behar da.

Aldi berean, aretoko soinuak 26 musikariren erantzunak jasotzen ditu galdera honen gainean: «Abestu dezakezu Espainian kanta ezin daitekeen zerbait?». Hauek dira artistak: Albert Pla, Alicia Ramos, Bea Pelea, Christina Rosenvinge, Ebri Knight, Fermin Muguruza, Gran Wyoming, Kiko Veneno, La Basu, La Santa K, Lichis, Mafalda, Maria Arnal, María Marín, Maria Rodés, Mariachis de la Nada, Nacho Vegas, Orquesta Fireluce, Pau Riba, Refree, Rocío Márquez, Santi Balmes, Sey Sisters, Soleá Morente, Tomasito eta Tulsa”.

ISAKI LACUESTA



*Los pasos dobles (2011)*

## ISAKI LACUESTA

GIRONA, 1975



Zinema garaikideko zuzendaririk hunki-garrienetako eta emankorrenetakoa da. Hizkuntza zinematografikoarekin esperimentatzeko apustua egiten du etengabe eta narratiba klasikoagoak dituzten filmak eta film dokumentalak edo poesia-ri, egunerokoari eta eskutitzei lotutakoak proposatzen ditu. Donostia Zinemaldiko bi Urrezko Maskorren irabazlea da (**Entre dos aguas**, 2018 eta **Los pasos dobles**, 2011), eta oraingoan instalazio batekin itzuli da Donostiara: **Prohibimos en España**; irudiaren bidez bisitaria zentsurari buruz esperimentatzera eta hausnartzera gonbidatzen du.



*Entre dos aguas (2018)*

### Filmografia:

UN AÑO, UNA NOCHE (2022)  
120 min  
ENTRE DOS AGUAS (2018)  
136 min  
LA PROPERA PELL (2016) 103 min  
MURIERON POR ENCIMA DE SUS  
POSIBILIDADES (2014) 100 min  
LOS PASOS DOBLES (2011) 86 min

EL CUADERNO DE BARRO (2011)  
60 min  
LA NOCHE QUE NO ACABA (2010)  
80 min  
LOS CONDENADOS (2009)  
104 min  
LA LEYENDA DEL TIEMPO (2006)  
115 min  
CRAVAN VS CRAVAN (2002)  
100 min

### Esku-hartzeak:

GOSAR PODER (2022)  
JO SOC ALLÒ PROHIBIT (2019)  
LA TERCERA CARA DE LA LLUNA  
(2019) Pep Admetlla-rekin  
L'ACUSAT (El acusado, un caso del  
sur) (2019)  
CUADRA / ESTABLO (2019)  
Pedro G. Romero-rekin  
YOUR PHONE IS A COP (2019)  
Refree-rekin  
LES IMAGES ECHO I LES FILMS  
DOUBLES (2018)  
RCR, SOMNI I NATURA (Sueño y  
Naturaleza) (2018)  
Carolina Rosich eta Brutal Media-  
rekin  
AFTERMATH. ARCHITECTURE  
BEYOND ARCHITECTS (2016)  
Jaume Prat eta Jelena  
Prokopljevic-ekin  
MIRAR DUES VEGADES (2016)  
MUR / MURS (2015)

LOS MUROS INVISIBLES (2015)  
DE COS PRESENT (2012)  
EL RITO (2010)  
EL RETABLO DE LAS  
ADIVINACIONES (2010)  
MUSEO PICASSO (BARCELONA)  
VIST PER ISAKI LACUESTA & ISA  
CAMPO (2010)  
LAS LEYES DE LA GRAVEDAD  
(2010-2012)  
MULLADA LLUM (2010).  
Isa Campo-rekin  
LUGARES QUE NO EXISTEN.  
GOGGLE EARTH 1.0 (2009)  
Isa Campo-rekin  
LOS CUERPOS TRANSLÚCIDOS  
(2008)  
LUZ AZUL (2008)  
Isa Campo-rekin  
TRAÇOS / TRACES (2007)  
MICROCÒSMICS (2003)



# JIA ZHANG-KE

Jia Zhang-ke *Seigarren Belaunaldia* delakoaren ahots garrantzitsuenetakoa da. 1990eko hamarkadaren hasieran, zinemagile talde hori filmak egiten hasi zen Estatuak araututako ikasketa-sistematik kanpo. Haien filmak aurrekoenak baino indibidualistagoak dira. Halaber, Txinaren industrializazio azkarrari eta horrek ekosistemetan eta harreman sozialetan duen eraginari buruzko begirada kritikoa ematen dute. Haien filmen bereizgarria da aktore ez profesionalek parte hartzea eta hartualdi luzeak izatea; horrek dokumental-sentsazioa ematen dio egindako lanari.

Jia, zuzendaria, gidoilaria eta ekoizlea izanik, Txinako zinema independentearen aitzindarietako bat da. Fenyangen hazi zen, Txinako iparraldeko Shanxi probintzian. Toki hori da bere lehen film luzeen eszenatokia; orain, film horiek trilogiatzat hartzen dira: *Xiao wu / Pickpocket* (1998), *Zhantai / Platform* (2000) eta *Ren xiao yao / Unknown Pleasures* (2002). Horiei esker, Txinaren bilakaeraren (60ko eta 70eko hamarkadetako Kultura Iraultzatik Tiananmen plazako protesten eta horien ondorioetara arte) kronikari izatearen ospea lortu zuen. Bere lana Txinako historia alternatiboa dela esan daiteke.

Berehala, Jiaren filmek nazioarteko zinema-jaialdietan sariak jaso zituzten; horiei esker, aurrekontu handiagoekin lan egiteko aukera izan zuen. Lehenengoa *Shije / The World* (2004) izan zen eta Pekingo World Parken filmatu zen. Bere film berrienetan, *Tian zhu ding / A Touch of Sin* (2013) eta *Jiang hu er nu / Ash is Purest White* (2018), genero-zinemako elementuak ere sartu zituen. Jorratutako gaiak, krimena, mendekua eta zientzia-fikziozko zinemaren alderdiei esker, balentria izan zen estiloari dagokionez.

Hala ere, Jiak ez zuen albo batera utzi behaketa sozialak egiteko zuen gaitasuna, ezta pertsonaiei denboraldi luzeagoetan jarraitzeko joera ere. Horri dagokionez, kontzeptu garrantzitsua da "guanxi", Txinako gizartean pertsonen arteko harreman sozialak baldintzatzen dituen sistema. Bere fikziozko film bikietan eta dokumentaletan,



**Sanxia haoren / Still Life** eta **Dong** (2006), protagonistak sistema zabalago baten barruan kokatzen ditu. Errepikatzen diren irudiek ebakutatutako meatze-herrien eta ibaiertzeko hirien hartualdiak dituzte. Toki horiek Yangzi ibaian Hiru Arroiletako presa eraikitzekeo sakrifikatu ziren.

## CLOSE-UP

“Txina garaikidean, hiri edo herrietako txoko guztiak TBko zirkuitu itxien kamerez beteta daude. Espazio publikoetan ia ez dago puntu itsurik, eta jendea une oro zelatatzen da. Txinan kamera horiei “zeruko begia” esaten zaie, eta irudi-ekoizlerik handienak dira. Hala ere, norbanakoak “zehaztugabe” eta “hutsal” bihurtzen dira zelatatze-irudi angelu ultra zabal horien artean. Horrek filmaketa birplanteatzera narama. Kamera zinematoko-



*Close-Up* (2021)

grafikoek fotograma-balio ezberdinen bidez filmatzen dute. Zuzendariak behaketa panoramikoak angelu zabaletik egiteaz gain, lehen planoko zatiei eta xehetasunei arreta jarriko die, eta pertsona zehatz bakoitza

den bezala begiratuko du. Filmaketaren begiak ez du zerikusirik "zeruko begiarekin". Erakusketa honetan, norbanakoak "zeruko begiaren" arabera aztertzen saiatzen naiz, eta, horretarako, filmaketaren lehen planoaz baliatzen naiz".

JIA ZHANG-KE

## JIA ZHANG-KE

FENYANG,  
TXINA, 1970



Txinako zinema independentearen ahotsaren ordezkaria da. **Platform** (2000), **Still Life** (2006) eta antzeko filmek sarritan fikzioaren eta dokumentalaren arteko elkar-gunea aztertzen dute. Behaketa soziala funtsezko elementua da bere obran. Bere estilo-baliabiderik garrantzitsuena handitutako plano osoa da. Norbanakoa beti da entitate handiago baten parte: espazio bat, egoera bat, garai bat. **Vive le cinéma!** erakusketarako **Close-Up** izeneko zaintza-kameraren nonahikotasunean oinarritutako lan berria egin du.

*A Touch of Sin (2013)*



*Still Life (2006)*

Filmografia:

XIAO WU / PICKPOCKET (1998)

108 min

ZHANTAI / PLATFORM (2000)

154 min

IN PUBLIC (2001) 30 min

REN XIAO YAO / UNKNOWN

PLEASURES (2002) 12 min

SHIJE / THE WORLD (2004)

143 min

DONG (2006) 66 min

SANXIA HAOREN / STILL LIFE

(2006) 111 min

WOMEN DE SHI NIAN / TEN YEARS

(2007) 9 min

WU YONG / USELESS (2007)

80 min

ER SHI SI CHENG JI / 24 CITY

(2008) 112 min

HAI SHANG CHUAN QI / I WISH

I KNEW (2010) 125 min

TIAN ZHU DING / A TOUCH OF SIN

(2013) 133 min

SMOG JOURNEYS (2015) 7 min

SHAN HE GU REN / MOUNTAINS

MAY DEPART (2015) 131 min

THE HEDONISTS (2016) 25 min

WHERE HAS THE TIME GONE?

(2017) 18 min

ASH IS PUREST WHITE (2018)

150 min



*Bodies of Negroes: I Will Sculpture God, Grim and Benevolent (2021)*

# LEMOHANG JEREMIAH MOSESE

Lemohang Jeremiah Mosese Lesothoko zinemagile eta artista bisual autodidakta da; egun Berlinen bizi da. Egungo zinemako ahots berri interesgarrienetakoa da. Horrez gain, kontinenteko zinema inguratzen duten estereotipoak zalantzan jartzen dituen eta istorioak kontatzeko iruditegi bisual berria garatzen duen Afrikako zinemagileen belaunaldiaren parte da.

Bere filmetan, Mosesek haurtzaroko oroitzapenak prozesatu ohi ditu eta europar jatorriko erlijioek kolonialismo ondorengo gizarteetan izandako eragina nolakoa den aztertzen du. **For Those Whose God Is Dead** (2013) film laburrean izaki goren batengan sinesteko ilusioa galdu duten hiru pertsonaren istorioa kontatzen du **Behemoth: Or the Game of God** (2016) filmean, noraezeko predikari batek hilketxa bat darama kaleetatik arrastaka, dizipulu gehiago erakartzeko asmoz. Baina lortzen duena guztiz kontrakoa da.

**Mother, I Am Suffocating. This Is My Last Film About You**, (2019ko Berlinalean eman zen lehenengo aldiz) dokumentalean berriro jartzen du zalantzan kristautasunaren eta kolonialismoaren legatua Lesothon. Mosesek film hori bost pantailatako instalazio ere bihurtu zuen, eta besteak beste, MOMAn aurkeztu zen.

**This Is Not a Burial, It's a Resurrection** (2019), bere lehenengo film luzea, Veneziako Zinema Jaialdian estreinatu zen. Irudi sendoak, kontraste handikoak eta estilizatuak erabili zituen. Filmean, bere amonaren istorioa kontatzen du; bere herria utzi behar izan zuen, presa bat eraiki zezaten. Istorio pertsonalak deserrotzeari, harreman sozialei, tradizioei eta identitate espiritualari buruzko diskurtso zabalagoa irekitzen du.

## BODIES OF NEGROES. I WILL SCULPTURE GOD, GRIM AND BENEVOLENT

“Denboraren mendebaldeko kontzeptu kausal linealaren aurrean, denboraren kontzeptzio holistikoagoa eta globalagoa kokatzen dut. Oraina, iragana eta geroa bata bestearen ondoan eta haien bidez batera existitzen dira. Denbora gizakiaz gaindi ere existitzen da. **Bodies of Negroes. I Will Sculpture God, Grim and Benevolent** lanak hiltorian dagoen ama zaintzen duten 11 alaba beltzengana garamatza. Aurregia, gorputza, oinak garbitzen dizkiote. Baina zenbat eta gehiago garbitu, orduan eta erritualistikoagoak bihurtzen dira haien ekintzak. Hobeto esanda, haien transgresio propioak garbitzen ari direla dirudi. Batzuetan, garbitzeak hildako gorputzaren garbiketa metaforikoa dakar, edo pentsa liteke alabek amaren gorputza bizitzaz busti nahi dutela ala amak hiltorian dagoen alabarena. Nire lana espazio zurien barruan bizi da, baina ez dauka zerikusi askorik zuritasunarekin, afrikar testuinguruarekin eta belztasunarekin baizik”.

LEMOHANG JEREMIAH MOSESE

## LEMOHANG JEREMIAH MOSESE

HLOTSE,  
LESOTHO, 1980



Lemohang Jeremiah Mosese egungo ahotsik bisualenetakoa eta interesgarrietakoa da. Afrikako zinemagileen belaunaldiaren parte da. Haien lanak kontinenteko zinema inguratzen duten estereotipoak zalantzan jartzen ditu eta haien istorioak kontatzeko iruditegi bisual berria garatzen du **This Is Not a Burial, It's a Resurrection** (2019) filmak irudi zoragarriak eta sarkorrak erabiltzen ditu bere amonaren istorioa kontatzeko; bere herria utzi behar izan zuen presa bat eraiki

zezaten. Erakusketa honetarako **Bodies of Negroes. I Will Sculpture God, Grim and Benevolent**, egin du; pantaila ugari dituen instalazio hunkigarria da eta emakume beltzen gorputzaren irudikapena du ardatz.

*This is Not a Burial, It's a Resurrection* (2019)



Filmografia:

FOR THOSE WHOSE GOD IS DEAD

(2013) 73 min

MOSONNGOA (2014) 28 min

BEHEMOTH: OR THE GAME

OF GOD (2016) 13 min

MOTHER, I AM SUFFOCATING.

THIS IS MY LAST FILM ABOUT YOU

(2019) 76 min

THIS IS NOT A BURIAL, IT'S A

RESURRECTION (2019) 120 min



## **ESKER BEREZIAK**

**Sata Cissokho, David Zerat, Ilan Amouyal, Nicolás Jaar,  
Pantxo Bertin, Sunny Jiang, Marente Bloemheuvel, Sandra den Hamer,  
Claartje Opdam, Anaís Córdova Páez eta Xavier Montoriol**

TABAKALERA



**KULTURA  
GARAIKIDEAREN  
NAZIOARTEKO  
ZENTROA**

---

Andre Zigarrogileak plaza 1  
20012 Donostia - San Sebastián

**ERAKUSKETA-ARETOAREN  
ORDUTEGIA**

2022/07/09-2022/09/25

Asteartea-Igandea

12:00 - 20:00

2022/09/27-2023/01/08

Asteartea-Igandea

12:00 - 14:00 / 16:00 - 20:00

Astelehenetan itxita

**INFORMAZIOA**

T. [+34] 943 218 855

E. [info@tabakalera.eus](mailto:info@tabakalera.eus)

**BULEGOAK**

T. [+34] 943 011 311

E. [tabakalera@tabakalera.eus](mailto:tabakalera@tabakalera.eus)

[tabakalera.eus](http://tabakalera.eus)